



## Emakume bat erail dute Zarautzen

---

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 16/10/2025

Urtea hasi zenetik, gutxienez sei erailketa matxistaren berri eman dute Euskal Herrian.

53 urteko emakume bat erail du 47 urteko gizon batek Zarautzen(Gipuzkoa). Zarauzko Udalak berretsi du hilketa matxista izan dela. Atzo gauean jakinarazi zioten Ertzaintzari emakume baten hilotza aurkitu zutela Zarautzen. Hala, lehen ikerketen ondoren, gizon bat atxilotu zuten poliziek, hilketa-delitu bat egotzita. Ikerketa irekia jarraitzen du, gertatutakoa argitu arte.

---

[https://www.lahaine.org/mm\\_ss\\_est\\_esp.php/emakume-bat-erail-dute-zarautzen](https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/emakume-bat-erail-dute-zarautzen)